

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORBEIALDEKO PARTZUERGEOA

Aramaio, Legutio, Otxandio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalen eta Gorbeialdeko Partzuergoaren arteko administrazio hitzarmena onartzea, azken erakunde horrek aipaturako udalerrien lurralde eremuan egokitutako konpostatze eremu komunitarioen mantentze eta kontrol zerbitzuaren lan mandatua gauzatu dezan

2020ko uztailaren 9an egindako Batzar Nagusiaren ohiko bilkuran, Gorbeialdeko Partzuergoak onartu zuen Aramaio, Legutio, Otxandio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalekiko administrazio hitzarmen bat formalizatzea, Partzuergoak aipaturiko udalerrien lurralde eremuan egokitutako konpostatze eremu komunitarioak mantendu eta kontrolatzeko zerbitzuari doakion lan mandatua bete zezan.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egun baliodunetik aurrera, Administrazio auzietarako jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 10 eta 46. artikuluek xedatutakoari jarraiki. Hala ere, hori baino lehenago, eta nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena duen organoaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Hori guztia egin behar da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz; hala ere, egoki iritziz gero, beste edozein egintza edo errekurtsu abiarazi ahal izango du interesdunak bere eskubideak aldezteko.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.b) artikulua xedatutakoaren arabera, ALHAOn argitaratu da hitzarmen hori, eta eranskin gisa josi zaio agiriari.

ERANSKINA

**ARAMAIO, LEGUTIO, OTXANDIO, URKABUSTAIZ, ZIGOITIA ETA ZUIAKO UDALEN
ETA GORBEIALDEKO PARTZUERGOAREN ARTEKO ADMINISTRAZIO HITZARMENA,
AZKEN ERAKUNDE HORREK AIPATURIKO UDALERRIEN LURRALDE EREMUAN
EGOKITUTAKO KONPOSTATZE EREMU KOMUNITARIOEN MANTENTZE
ETA KONTROL ZERBITZUAREN LAN MANDATUA GAUZATU DEZAN**

Murgian, 2020ko irailaren 25ean.

HONAKOAK BILDU DIRA

Batetik:

Unai Gutiérrez Urkiza, Gorbeialdeko Partzuergoaren presidentea, 2020ko uztailaren 9an egindako batzarrean hartutako erabakiaren bidez, honako hitzarmen hau sinatzeko ahaldundua.

Eta bestetik:

Lierni Altuna Ugarte, Aramaioko Udaleko alkate-udalburua, 2020ko irailaren 24an egindako Osoko bilkuran hartu zen erabakiaren bidez, honako hitzarmen hau sinatzeko baimendua.

Jon Zuazo Zubero, Legutioko Udaleko alkate-udalburua, 2020ko uztailaren 1ean egindako Osoko bilkuran hartu zen erabakiaren bidez, honako hitzarmen hau sinatzeko baimendua.

Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa, Urkabustaizko Udaleko alkate-udalburua, 2020ko ekainaren 24an egindako Osoko bilkuran hartu zen erabakiaren bidez, honako hitzarmen hau sinatzeko baimendua.

Javier Gorbeña García, Zigoitiako Udaleko alkate-udalburua, 2020ko uztailaren 9an egindako Osoko bilkuran hartu zen erabakiaren bidez, honako hitzarmen hau sinatzeko baimendua.

Unai Gutiérrez Urkiza, Zuiako Udaleko alkate-udalburua, 2020ko ekainaren 24an egindako Osoko bilkuran hartu zen erabakiaren bidez, honako hitzarmen hau sinatzeko baimendua.

Aipatutako pertsonak alkate direneko udalen ordezkariak dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua xedatutakoaren arabera.

Partzuergoari dagokionez, presidenteak badauka ordezkaritza, erakundearen estatutuen 13. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Alderdiek elkarri aitortzen diote ekitaldi hau egiteko legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa dutela, aurrekari hauek kontuan hartuta:

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Arabako Foru Aldundiak 2018an argitaratutako Hondakinen Behatokiaren azken txostenean jasotako datuen arabera, Arabako Lurralde Historikoan, etxeko hondakin organikoen ehuneko 8 baino ez da gaika bildu eta eragingarriro kudeatu. Beste alde batetik, Partzuergoak 2017an egindako karakterizaziotik ateratako datuen arabera, errefusako edukiontzietan utzitako hondakinen % 50, gutxi gorabehera, hondakin organikoak dira.

BIGARRENA: Gorbeialdeko Partzuergoa osatzen duten udalek eta Aramaioiko Udalak lan egiten dihardute hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzu hurbila, kalitatezkoa eta ingurumena eta gure ingurunearen babesa eta zaintza sustatzen duena eskaintzeko.

Horregatik, ingurumen helburuak betetzeko xedez, errefusako edukiontzietara botatzen diren hondakin organikoen ehunekoa murrizteko ekintzak sustatu nahi dituzte.

HIRUGARRENA: Aipatutako udalerrri guztiak, funtsean, landa-inguruneak direla aintzat hartuta, ingurumenaren ikuspegitik, eredu deszentralizatu baten aldeko apustua da, zalantzarik gabe, ingurumenean eragin txikiena sorrarazten duen aukera. Gainera, aipatu behar da konpostatzearen kontzeptua bera hondakinak prebenitzeko jardueratzat hartzen dela; izan ere, gaikako bilketarako eta baimendutako kudeaketa plantara garraiatzeko zerbitzurik ez dagoenez, hondakin organikoak hondakintzat har litezke, baina baliabidetzat ere bai.

Horren haritik, konpostatze deszentralizatua, dela etxeko/banakako konpostatzearen bidez, dela konpostatze komunitarioko ekimenen bidez, ekonomia zirkularraren adibide garbiada; izan ere, hondakin organikoak aprobetxatu nahi dira tokian-tokian kudeatzeko, eta mantenua lurrari berriro eman ongari organiko gisa.

Horregatik guztiagatik, Gorbeialdeko eskualdean hondakin organikoak kudeatzeko eredu deszentralizatu baten aldeko apustua tokiko jasangarritasunaren eta ingurumenaren aldeko apustutzat ulertu behar da.

LAUGARRENA: Aurrekoarekin bat etorritik, Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalek konpostatze komunitarioko hainbat instalazio jarri dituzte martxan, eta horiek profesionalen kontrola eta jarraipena behar dute, bai legezko eskakizunak betetzen direla bermatzeko, bai horien funtzionamendu eta garapen egokia bermatzeko.

BOSGARRENA: apirilaren 9ko 63/2019 Dekretuak, konpostatze instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituenak, jarduera behar bezala garatzeko eta osasunerako arriskuak prebenitzeko zenbait baldintza tekniko eta prozesuaren kontrolekoak betetzea eskatzen dizkie instalazio horien erakunde titularrei.

SEIGARRENA: honako hitzarmen hau sinatzen duten udalek Gorbeialdeko Partzuergoaren esku utzi dute laguntza teknikoko zerbitzuak kontratatzeko ardura, hitzarmen honek irauten duen bitartean egokituta dituzten edo egokitzeko asmoa dituzten konpostatze komunitarioko guneak kontrolatu eta mantentzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA: hizpide darabiltzagun jarduerak ingurumena babesteko jardueren barrukoak dira, eta herritarren ongizate-premien funtsezko zati dira; gainera, kontratatzeko modukoak dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1 artikulua araberara. Lege horren araberara, udalerrriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzokideen beharrezan erantzuten dizkieten jarduerak sustatu eta zerbitzuak eman ditzake, artikulua horretan ezarritako baldintzetan. Esandako artikulua, besteak beste, ingurumena babesteko eta hondakin solidoak kudeatzeko eskumenak aipatzen ditu.

Zerbitzu hori ematea udalerriei badagokiela jakin dakigun arren, lehenengo atalean adierazitako erakundeek Gorbeialdeko hondakin solidoak biltzeko Partzuergoa eratu zuten (aurrerantzean, Gorbeialdeko Partzuergoa), besteak beste, Legutio, Otxandio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udal mugarteetako eta Olaetako administrazio batzarreko hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratamendu zentroraino garraiatzeko zerbitzua modu elkartuan emateko.

Gainera, Aramaioko Udalak Partzuergoaren esku utzita dauka bere lurralde eremuan sortutako hiri hondakin solidoak biltzea eta baimendutako tratamendu zentroetara eramatea.

Beraz, hitzarmen honen xedea kontuan hartuta, Partzuergoa erakunde egokientzat jotzen da konpostatze komunitarioko eremuak kontrolatzeko laguntza teknikoko zerbitzua ere emateko, eskualdeko hondakinei erantzun integrala emate aldera, hondakinen kudeaketa nahiz prebentzioa aintzat hartuta.

Gainera, ikuspegi ekonomiko hutsetik, interesgarria da zerbitzua Partzuergoaren esku uztea, kostuak merkatzea ahalbidetzen baitu eskalako ekonomiari esker.

BIGARRENA: 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore publikoko kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duenak, honako hau ezarri zuen 31.1 artikuluan:

“1. Sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu ahalko dira, eta lankidetzan horren ondoriozko emaitza ezingo da kontratu gisa hartu.

...b) Sektore publikoari dagozkion erakundeek lankidetzan horizontaleko sistemen bitartez, aldeztu aurretik kasuan kasuko hitzarmenak egin badira, 6. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako baldintza eta mugekin”

HIRUGARRENA: Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen 6. artikuluan aplikazio eremu horretatik toki erakundeek elkarrekin egindako hitzarmenak salbuesteko ezarritako mugak eta baldintzak honako hauek dira:

a) a) Parte hartzen duten erakundeek ez dute merkatu bokaziorik izan behar (kolaborazioaren helburu diren jardueren % 20 baino gutxiago merkatu irekian egiten direnean).

b) Hitzarmenak parte hartzen duten erakundeek arteko lankidetzan ezarri behar du, haiei dagozkien zerbitzu publikoak ematerakoan, helburu erkideen lorpena bermatze aldera.

c) Lankidetzan garatzean, soilik interes publikoari lotutako irizpideak nagusitu behar dira.

LAUGARRENA: 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoak (aurrerantzean, SPAJL), honela definitzen ditu hitzarmenak 47. artikuluan: , administrazio publikoek xede erkidea lortzeko helburuz sinatutako ondorio juridikodun akordioak; horrez gain, hitzarmen moten artean, besteak beste, administrazioen arteko hitzarmenak finkatu zituen (administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutakoak) eta ezarri zuen beste administrazio baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabili ahalko direla, eskumen propioak edo eskuordetuak baliatzeko.

BOSGARRENA: Hitzarmenen baliozkotasun eta eraginkortasun betekizunei dagokienez, SPAJLen 48. artikulua ezarri zuenez, "hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren eragin-garritasuna hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako legeria bete". Ildo beretik, hitzarmena izenpetzen duen administrazioarentzat finantza-konpromisoak dakartzaten hitzarmenen ziozko gastuak aurrekontu legerian xedatutakoaren arabera izango dira, eta finantzen ikuspegitik jasangarriak izan beharko dute, halako eran non sinatzen dutenek finantzatzeko gaitasuna izan beharko duten hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

SEIGARRENA: Hitzarmenen edukari dagokionez, SPAJLen 49. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Aurrekoa azalduta, lortu nahi den ekintza gauzatzeko, aipatutako alderdiek honako klausula hauek adostu dituzte:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. Xedea: hitzarmen honen xedea da, hasiera batean, konpostatze eremu komunitario hauek kontrolatzeko eta mantentzeko laguntza teknikoko zerbitzuak emateko lan mandatuaren baldintzak islatzea, kontratua indarrean dagoen bitartean eremu gehiago bil daitezkeela kontuan hartuta.

UDALERRIA	KONPOSTATZE KOMUNITARIOKO EREMUAK
LEGUTIO	1. Basatxi 2. Elixoste 3. Luberi 4. Urrunaga
URKABUSTAIZ	1. Pilotalekuko plaza 2. Azkarrio 3. "Alde Zaharra"
ZIGOITIA	1. Urisolo 2. Gurutze plaza 3. Gorbeia eskola 4. Okoizta
ZUIA	1. Bigilano 2. San Martin 3. Murgiako III. Aldea
ARAMAIO	1. Osteta 2. Aita Gabirel

Lehenengo atalean aipatutako udalek Partzuergoaren esku utzitako oinarrizko zerbitzuak, aurreko taulan identifikatutako konpostatze eremu komunitario bakoitzean egin beharko direnak, honako hauek dira:

1. Jarraipen lanak:
 - Tenperatura hartzea eta erregistratzea.
 - Prozesua garatzeko hezetasun maila optimoa egiaztatzea.
 - Konpostagailuen porositatea eta trinkotze maila egiaztatzea.

- Konpostagailuen betetze-maila kontrolatzea eta erregistratzea.
- Usain txarrak hautematea.
- Edozein motatako gorabeherak antzematea eta konpontzea, eta ondoren, erregistratzea.
- Konpostagailuak material egituratzailez hornitu eta/edo ureztatu behar izanez gero, udal bakoitzeko aguazilei jakinaraztea.
- Bisita bakoitzeko jarraipen-fitxa betetzea.
- Laginak ontzi esterilizatuan biltzea, analisiak egiteko (hala dagokionez), eta hori egin ondotik, laborategi egiaztaturen batera eramatea, laginak aztertzeke.
- Emandako zerbitzuaren txosten eta memoria teknikoak prestatzea.
- Laguntza teknikoa ematea, Eusko Jaurlaritzak instalazioa ikuskatuz gero.

2. Mantentze lanak:

- Materiala konpostagailu guztietan iraultzea.
- Hondakinak konpostagailuen artean banatzea, beharrezkotzat jotzen denean eta/edo prozesua errazten denean.
- Prozesua hobeto garatzeko beharrezkoa denean, ureztatzea edo, hala badagokio, aguazilei lan hori egiteko abisua ematea, zuzenean egin ezin denean, hurbileko ur hargunerik ez dagoelako.
- Konpostagailuak material egituratzailez hornitzea, prozesua garatzeko beharrezkotzat eta egokitzat jotzen den kasuetan.
- Konpostagailuak hustea, zikloa bete dela egiaztatu eta heltze egoera ezin hobean dagoela egiaztatu ondoren.

Aurreko ataletan deskribatutako zereginak udal bakoitzak izendatutako langileekin behar bezala koordinatuta egingo dira. Horrela, besteak beste, konpostagailuak husten diren bakoitzean, pertsona horiei abisua emango zaie, kasuan-kasuan ateratako konposta non utzi edo gorde behar den adieraz dezaten.

BIGARRENA. Hitzarmena gauzatu ahal izateko, alderdi sinatzaileek konpromiso hauek hartu dituzte:

A. ARAMAIO, LEGUTIO, URKABUSTAIZ, ZIGOITIA ETA ZUIAKO UDALEK

1. Zerbitzuaren kostua finantzatzeko konpromisoa hartzea, bakoitzari dagokion neurrian; beraz, horretarako beharrezkoak diren aurrekontuko kredituak jasoko dituzte urteko udal aurrekontuetan.

Udalak hartzen dituen zerbitzuei dagokien kostua finantzatuko du, konpostatze instalazio komunitarioen kopuruaren arabera. Instalazio bakoitzaren unitateko kostua honela kalkulatu da: esleipenaren prezioa zati udalerrietan dauden instalazio guztien batura.

2. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak kontratatzea arautuko duten baldintza agiriarekin ados egotea edo egokitzat jotako alegazio edo ekarpenak egitea, horien lizitazio prozedura izapidetu aurretik.

3. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak eman ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, Partzuergoaren eskariz, beharrezko ordainketak egitea, kontratazioa arautzen duen administrazio klausula berezien agirian ezartzen diren betekizunekin bat etorriz.

Horri dagokionez, emandako zerbitzuen faktura edo fakturak jaso ondoren, Partzuergoak, enpresari ordaindu aurretik, udalen adostasunaz galdetuko du udal bakoitzari emandako zerbitzuei dagokienez, eta Partzuergoaren kontuan zenbatekoa egokia sartzeko eskatuko die, gehienez ere, 15 eguneko epean.

B. Gorbeialdeko Partzuergoaren konpromisoak

1. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuen kontratazioa arautzen duten baldintza agiriekin ados dauden udalei galdetzea, kontratazioa izapidetu aurretik; hala, udalek egokitzen jotzen dituzten ekarpen edo alegazio oro egin ahalko dituzte.

2. Esleipenaren emaitzaren berri ematea zerbitzuan parte hartzen duten udalei, bai eta hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko konfigurazioan egin nahi den edozein aldaketaren berri ere, hala nola zerbitzuen esleipendun den pertsona edo erakundearen luzapenak, atzera egiteak, uko egiteak edo bestelako inguruabar garrantzitsuak.

HIRUGARRENA. SPAJLren 49.h) artikulua xedatutakoari jarraiki, hitzarmen hau 4 urteko epean egongo da indarrean, hitzarmen denetik zenbatzen hasita. Hala eta guztiz ere, adierazitako epea amaitu aurretik, hitzarmena sinatu duten erakundeek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena beste 4 urtez luzatzea edo azkentzea.

LAUGARRENA. 6 kidek osaturiko batzorde bat eratuko da hitzarmenean jasotakoak beteazteko eta jarraipenaren kontrolaz arduratzeko. Partzuergoko ordezkari batek eta zerbitzua partekatzen duten udaletako ordezkari banak osatuko dute batzordea.

Organo horren eginkizunak, besteak beste, ondokoak izango dira: kontratatutako zerbitzuak ematean sor daitezkeen eztabaidak ebaztea eta hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio zalantzak argitzea.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak betetzen ez badira edo behar bezala gauzatzen ez badira, zerbitzua partekatzen duten udalek idatziz helaraziko diote Gorbeialdeko Partzuergoari prestazioa eman ez deneko gertaera edo zerbitzua ematean izandako hutsuneak; Partzuergoak, idazkia jaso eta egutegiko 5 eguneko epean, kontratuaren enpresa esleipendunari helarazi beharko dio, eta hark egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztu beharko ditu baldintza agirietan ezarritako epearen barruan. Azkenik, alegazio horiek ikusita, Gorbeialdeko Partzuergoak egoera konpontzeko erabakirik egokiena hartuko du.

SEIGARRENA. Hitzarmen hau azkentzeko zergatiak honako hauek izango dira:

- Indarraldia amaitzea,
- Alderdi sinatzaileek aho batez erabakitzea,
- Aldeetako batek hartutako konpromiso ekonomikoak edo betebeharrak ez betetzea,
- Ebazpen judizial bidez, hitzarmena baliogabea dela deklaratzeko,
- Hitzarmenean jasotako klausulak betetzea galarazten duten bat-bateko inguruabarrak gertatzea.

ZAZPIGARRENA. Hitzarmena interpretatu eta betetzean sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzi jurisdikzionalaren ardurapekoak eta haren eskumenekoak izango dira.

Hitzarmena sinatzen duten alderdiek, dagokien neurrian, agiri honetan ezarritako xehetasunak beren gain hartzeko konpromisoa hartzen dute.

Hitzarmenarekin ados daudela adierazteko, agertutakoek agiriaren sei aletan sinatu dute, hots, erakunde bakoitzarentzat bana.

Murgian, 2020ko urriaren 5ean

Presidentea
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA